

Transkripzioa: **INTROA**

Mariñelok, denok itsasontzira, Euskal Herritik mundura, mundutik Euskal Herrira, Juan Sebastian Elkanok egin zuen bezala, munduan itsas bidaia bat egingo dugu, bira handi bat. Eta % 70 ura den gure Lur planeta honetan, uraren bidez, itsasoz, lakuz eta aintziraz, kultura desberdinak ezagutzeko aukera izango dugu. Sar gaitezen denok gure itsasontzi berezi honetan eta has dezagun bidaia, ikasiko duguna zoragarria izango baita.

Aurkituko dituzue leku desberdinetako, abesti, dantza, entzunaldi eta bestelakoak. Zati batean, nola egin ikasiko duzue, eta ondoren, zuek bakarrik egiteko aukera izango duzue. Zuen gustukoa izatea espero dugu. Azken finean, musikaz ikasi eta gozatuko baitugu. Has dadila bidaia!